





EUSKAL MUSEOA • BILBAO • MUSEO VASCO
Miguel de Unamuno Plaza, 4 - 48006 BILBAO
Gurutze kalea / Calle de la Cruz, 4 - 48005 BILBAO
Telf. 94 415 54 23 - Fax 94 479 06 08
<http://euskal-museoa.org> - museoa@euskal-museoa.org



IKUSLEENTZAKO ORDUAK HORARIOS DE VISITA

Asteleheneretan / Lunes: 10:00 -19:00
Asteazkenetik ostiralera arte / De miércoles a viernes: 10:00 -19:00
Larunbatetan / Sábados: 10:00 -13:30 / 16:00 -19:00
Igandeetan / Domingos: 10:00 -14:00
Asteartean itxita / Martes cerrado



norc ez dezala pentsa hemen haur ipuinen, gazteen kontakizunen eta tebeo entrete-
nigarrien eta komikien kaieren argitalpenaren historiari buruzko edo soldadutxo eta
panpina ebakinen, kromoen edo paperezko antzokien historiari buruzko erakuska-
ta osorik aurkituko duenik. Ez da hori gure helburua. Gure kasuan, halako asmoa
izatea harroa litzateke, mota horretako argitalpenei eta objektuei dagokienez –ilusioen
eta ametsen, poztasunen eta irribarreen eramaileak eta zaintzaileak, eta, zalantzarik
gabe, baita bekaitz batzuenak ere–, gure funtsa txikia baita. Zale eta bildumagile pri-
batu ugari askoz ere osoagoak eta askotarikoagoak diren erakusketak dauzkate, eta
gauza bera gertatzen da bai publikoak bai pribatuak diren liburutegien eta museoen
funtsen kasuan.

Gure asmoa ez da hain handinahia, besterik gabe gure bilduma txikia begiesteko auke-
ra eman nahi diegu herritarrei; neurri handi batean Museoak jasotzen dituen
dohaintza partikularrei esker eratu eta okasiorako ohiko laguntzaileetako
batzuen maileguen bidez osatutako bilduma. Emozioei dagokienez, as-
paldian “adindun” direnekiko gertutasuna lortu nahi dugu eta gehiago edo
gutxiago urrun dauden bizipenak gogora ekarri nahi dizkiegu. Erakusketak
hartzen duen aldi kronologikoa aintzat hartuta, tamalez oroitzapen horietako
asko goibelak izango dira, minak, izu-ikarak eta urritasunek tindatuta egongo
dira. Hori dela-eta, ausartuko gara gure bisitariei eskatzera, gutxienez tartetxo
batean, haiek guztiak baztertzeko eta haien ordez hauek guztiak jartzeko: ogia
eta txokolatea askaltzen zutenekoak, bizilagunekin eta haur garaiko lagunekin
kalean jolasean ibiltzen zirenekoak –ziur asko tebeoak trukatu eta kromoetara
jokatzen aritu ziren haiekin–, panpina hark eragin zien ilusio zoroa edo mutu utzi
zituena tren elektriko hura, lehen ipuinak kontatu edo irakurri zizkien haren ahotsa eta
hura amaitzean eman zien bihotzeko musu haren ukia.

Gazteagoak direnei, berriz, aukera eman nahi genieke, hain urrun egon gabe, oso
bestelakoa zen garai batean aisia igarotzeko tarreak nolakoak ziren irudika dezaten;
izan ere, kalkulagailurik gabe egiten ziren batuketak, garbigailua izatea luxu garestia
zen, etxeetan ez zegoen telebistarik eta komuneko papera latza zen. Garai hartan,
sakelako telefonoak, bideokontsolak, tabletak eta abar zientzia fikziotik gertu zegoen
fantasia ziren edo, onenera jota ere, zientzia eta/edo enpresa proiektu handinahi bat.
Ipuin edo tebeo bat irakurtzea, nola ez paperezkoa, gozamen txiki bat zen urte luzeak
izan ziren.

Batzuen eta besteen kasuan, gustatuko litzaziguke lortzea paperezko, kolore biziko eta
ilusiozko korridore hauetan proposatutako paseo honen ondorioz, Museotik irribarrea
aurpegian duzuela atera zaitezela eta ez zaitezela damutu etorri izanaz.



Que nadie espere encontrar aquí una exposición exhaustiva sobre la
historia de la edición de cuentos infantiles, de relatos juveniles y de
los entretenidos tebeos y cuadernillos de historietas gráficas o sobre
la historia de los soldaditos y muñecas recortables, los cromos o los
teatros de papel; no es ese nuestro objetivo. Semejante pretensión sería fatua en
nuestro caso, ya que en lo tocante a este tipo de publicaciones y objetos, -portadores
y guardianes de ilusiones y sueños, alegrías y risas, y sin duda también de algunas
envidias- nuestro fondo es pequeño. Numerosos aficionados y coleccionistas priva-
dos poseen muestras mucho más completas y variadas; otro tanto cabe decir de los
fondos de Bibliotecas y Museos tanto públicos como privados.

Nuestra pretensión es mucho menos ambiciosa, simplemente queremos ofrecer al
público la posibilidad de contemplar nuestra pequeña colección –formada en buena
parte gracias a las donaciones de particulares que el Museo recibe, y completada
para la ocasión con préstamos de algunos de sus colaboradores habituales-. Preten-
demos ser emocionalmente cercanos con aquellos que hace ya un tiempo que son
“mayores de edad” y hacerles recordar unas vivencias más o menos lejanas. Dado
el periodo cronológico que la exposición abarca, lamentablemente muchos de estos
recuerdos serán tristes, estarán teñidos de dolor, sobresaltos y penurias, por lo que
nos atrevemos a pedir a nuestros visitantes que, al menos por un ratito, los aparten
y que en su lugar pongan el de aquellas meriendas de pan con chocolate, el de los
juegos en la calle con vecinos y amigos de la infancia, con quienes seguramente se
cambiaron tebeos y se jugó a los cromos, el de la loca ilusión que les hizo aquella
muñeca o aquel tren eléctrico que les dejó sin habla, el de la voz de quienes les
contaron o leyeron sus primeros cuentos y el del roce de aquel beso entrañable que
les dieron al terminarlo.

A aquellos que son bastante más jóvenes nos gustaría brindarles una oportunidad
para hacerse una idea de cómo eran algunos de los ratos de ocio en una época,
no tan lejana, en la que se sumaba sin calculadora, las lavadoras eran un lujo, la
televisión no había llegado a nuestras casas y el papel higiénico rascaba; tiempos
en los que los teléfonos móviles, videoconsolas, tablets, etc eran una fantasía raya-
na en la ciencia ficción o en el mejor de los casos un ambicioso proyecto científico
y/o empresarial; largos años en los que leer un cuento o un tebeo, por supuesto en
soporte de papel, era una pequeña delicia.

De unos y otros nos gustaría conseguir que este paseo que os proponemos por pasi-
llos de papel, de colorín y de ilusión, haga que salgáis del Museo -nos permitimos el
“tuteo”- con una sonrisa y que no os arrepintáis de haber venido.